

JARDUERAK

Gure enpresa aurrera ateratzeko jarduera mordoa burutu beharko ditugu. Bezeroengana iristeko, lehenik eta behin, kontu bat sortuko dugu sare-sozial guztietan eta bertan gure produktua ezagutzera emango dugu. Horrez gain, web gune bat sortuko dugu. Web-gunea guk egiteko intentzioa dugu, uste baitugu baditugula nahiko baliabide orri txukun bat egiteko eta ez baitugu dirurik beste norbait kontratazeko hori soilik egiteko. Etorkizunean nahiko diru izango bagenu seguru aski norbait hartuko genuke web-orria eramateko eta sare sozialetaz arduratzeko; horrela dena txukun dagoela ziurtatuko genukelako.

Web-gunearen erabilpenari dagokionez, erabiltzeko erraza izango da, izan ere, gure bezero nagusiak helduak dira eta normalean zailtasunak izaten dituzte teknologia berriekin. Gainera, bertan gure bezeroek iruzkinak utzi ahal izango dituzte; eta guk kontuan izango ditugu gure produktua hobetzeko.

Produktuari dagokionez, guk piezak erosiko dizkiegu beste enpreseei eta pieza horiek gure eskuetan ditugunean muntatu egin beharko ditugu. Horretarako lehenengo pieza diseinatu behar da eta behin-behineko diseinua lortzerakoan 3D-ko piezak inprimatzen dituen enpresari bidaliko diogu. Bestalde, behar ditugun izpi-ultragorriak erosiko ditugu eta material guztia dugunean gure produktua muntatuko dugu. Behin muntatzerakoan, gure produktua ortopedietan salduko genuke eta gure web-orrian. Ortopedietara eramateko, gure kotxe propioetan eramango genituzke diru kontuak direla eta.

Kopuruari dagokionez, eskaeraren araberako produkzioa izango dugu, hau da, bezeroek beren eskaera egin beharko dute eta, ondoren, guk egingo dugu produktua. Hori bai, saiatuko gara behar dugun materiala, izpi-ultragorriak eta 3D-ko piezak, beti eskura izaten; horrela azkarrago entregatzeko gai izango gara.